

Hari eta herri: Luzaiden etnografia (digitala) eginez, euskal territorioa ingurune digitalean marrazten

Koldo Díaz Bizkarguenaga

Soziologian Doktorea. EHUko irakaslea

Laburpena

Euskal Herria, euskal identitatea eta euskara Globalizazio eta Internet garaian egoteko zein egiteko moduei helduko diegu. Horretarako, On Joxe Miguel Barandiaranen irakaspenak egungo garaira ekarriz, maila teorikoan ingurune digitalaren izanari izena jarriko diogu, eta maila metodologikoan Euskal Herrian egindako lehen online etnografia eta etnografia (digitala) azalduko ditugu. Gaur egungo mundua gure herritik ikusiz, geure herritarrak entzunez eta hau guztiori geure hizkuntzan idatziz, lurraldetasunaren auziari bidea irekiko diogu. Izan ere, lehen aldiz gure historian zehar espainiar eta frantziar estatuen mugen gainetik euskal herritarrok territorio berean bizitzeko aukera dugula ondorioztatu dugu. Azkenik, ondorio hauei esker Nazio kontzeptuari ekarpen teorikoa egin diogu ere: Benedict Andersonen naziorik txikienetako herritarrek aurrez aurre ezagutzeko aukera izango ez zutenaren ideia gaindituz, ingurune digitalaren garaian nazio handienetariko herritarrek ere aukera hori dutela esan baitezakegu.

Gako-hitzak: Lurraldetasuna, territoria, euskal identitatea, ingurune digitala, etnografia.

Jasotze data: 2018ko urtarrilaren 30ean.

Onartze data: 2018ko maiatzaren 14an.

Abstract

The main issue that will be tackled in this paper is the role that Basque Country, Basque identity and Basque language do play in a Global and Digital era. Following Jose Miguel de Barandiaran, in a theoretical framework, it will be named the “digital

environment”; and in a methodological framework, there will be explained the first Online ethnography and (digital) ethnography conducted in Basque Country. Observing the world from our Country, listening our citizens and writing all these ideas in our language, we will be able to unravel the territorial problem: for the first time in our history, Basque citizens are able to inhabit a territory beyond Spanish and French states. Finally, overcoming the idea of Benedict Anderson, we will defend that even the citizens from the biggest nation are able to know most of their fellow-members, meet them, or hear of them.

KEYWORDS: Territory, Basque identity, digital environment, ethnography.

1. SARRERA

Guztiok ikusteko gai garena beste begirada batekin ikusteko gai izatea, horra zientziaren definizio posible bat. Zer esanik ez gizarte-zientzien kasuan, zeinetan aztertzen ditugun ikerketa-objektuak begi-bistakoak diren eta, gainera, maiz, ikerketa-objektua eta ikerketa-subjektua gauza bera diren. Are gehiago, zeinetan ikertzailea bera ere ikertua den, zientzian ezagunak ditugun posizio eta dikotomia horiek hautsiz. Azkenengo pausu hau, soziologiatik antropologiara dagoen jauzia bezala irudikatu dezakegu. Zehatzago izanda, ikerketa-metodo soziologikoetatik ikerketa-metodo antropologikoetara dagoen aldea bezala -baldin eta ikerketa-metodoak diziplina zehatz baten jabetza gisa ulertzen baditugu, jakina. Evans-Pritchard antropologoaren argazki klasikoak ezin hobeto irudikatzen du ikertzailea eta ikerketa-objektu-subjektu posizioen arteko disoluzioa zein etnografia beraren izaera: tribu bateko kideen artean bizi da antropologoa, hauen ohiturak, praktikak, diskurtsoak, sinesmenak eta, oro har, mundu-ikuskerak ulertzeko.

Soziologian lizentziatura bukatuta, Eusko Jaurlaritzaren beka bati esker, doktorego-tesia egiteko aukera izan nuen. Lehen pausua, ikerketa-objektua zehaztea zen, aski erreza: kontzientzia dudanetik motibazio-iturri eta kezka izandako euskal identitatea ulertu eta, zergatik ez onartu, hortik abiatuta, euskal gizarte eta herriari ekarpen bat egin nahi nion. Bigarren pausua, euskal identitatea aztertzeke ikerketa-espazioa zehaztea zen, aski konplikatua: kontzientzia izateagatik, honen erabilera masiboa ulertu ezinik nenbilen Facebook online sare sozialean (eta oro har Interneten) murgiltzea erabaki nuen. Horrela, azkenik, hirugarren pausua ia berez eman zen; ikerketa-subjektu gisa gazteak aztertu nituen.

Azalpen hauek oinarritzkoak badira ere, nik behintzat, bi urte behar izan nituen oker nenbilela ikusteko; ikerketa-objektua euskal identitatea beharrean, euskal identitatearen eraikuntza zela ohartzeko, hain zuzen ere. Gazteek Facebooken eta Facebook bidez euskal identitatea eraikitzeke erabiltzen zituzten identitate-erreferenteak eta sinboloak aztertzen ari nintzen, diskurtso eta praktiketan murgiltzen ari nintzela konturatu gabe; eta garrantzitsuagoa zena, euskal identitatearen ikuspegi esentzialistaz gain ikuspegi konstruktibista kontuan hartzen ari nintzela konturatu gabe. Euskal identitatea bera aztertzeke ikerketa-galdera birformulatu behar izan nuen, zer da euskal identitatea galderatik, zelan eraikitzen da euskal identitatea galderara igaroz; euskal identitatearen izatetik egitearen auzira igaroz, Ibai Iztuetak (2015) hobeto aztertu duen euskal herritartasuna eta euskal hiritartasuna aztertuz.

Orduantxe, arazo epistemologiko batekin aurkitu nintzen: argitu nahi nuen galdera soziologikoarentzat (“gazteek nola eraikitzen dute euskal identitatea Facebook bidez?”) ez nuen tresneria metodologiko egokia: sakoneko elkarrizketa eta talde-eztabaida soilekin, eta are gutxiago inkestekin, ezin nituen gazteen mugak, nahiak,

aukerak, desirak edota gogoak ulertu. Gainera, era orokor batean hitz eginda, euskal identitatea bezalako ikerketa-arazo zahar bat, Informazio eta Komunikaziorako Teknologien (IKT) egonkortzeagatik paradigma aldaketa bat bizi duen mundu globalizatuan ulertzeko bestelako tresneria kontzeptuala eta metodologikoa beharrezkoa nuen. Beste era batera esanda, ikerketa-espazioak berak eskaintzen zituen ikerketa-metodoak esploratu beharra zegoen.

Ordura arte erabilitako ikerketa-metodoen mugak ikusita eta emaitza berriak lortzeko prozedura berriak aplikatu behar direla sinetsita, etnografian murgildu nintzen euskal komunitate online baten ohiturak, praktikak eta diskurtsoak ezagutzeko. Evans-Pritcharden posizio aldaketa jarraituz, ikertzailea izanik nik neuk neure burua gazte gisa ikertzeaz gain, aztertu beharreko komunitatea ez zen milaka kilometrotara zegoen tribu exotiko bat, nirea ere baden euskal komunitatea zen. Eta, gainera, distantzia eta espazioa birdefinitu dituen Interneti esker, ez nuen inora joan beharrik ikerketa hau burutzeko: aztertu beharreko komunitateko kideekin batera egotea (munduko enpresa ezberdinetan praktikak burutzeko Eusko Jaurlaritzaren beka bat zuten 40 gazte inguruko taldea) neure etxetik edo bulegotik egin nezakeen.

Horrela, bideak eramanda eta ikerketan parte hartu zuten gazteei esker, begi-bistakoa den egoera bat beste begi batzuekin ikusteko aukera izan nuen: Internetek leku geografikorik mugatzen ez duela edo, beste era batera esanda: muga geografikoetatik gaindi euskal identitatea, euskal komunitatea eta euskal herria eraikitzeo aukera dugula, edo anbizio gehiagorekin jokatzuz: euskal herritarrok historian zehar lehen aldiz, estatu espainol eta frantsesaren mugez gaindi, elkar aurkitzeko territorio bat daukagula.

Ingurune digitalaz hitz egitera heldu arte Internetek euskal gizartean izan dituen ondorioak, euskal identitatea izatetik egiterako azterketa, euskal akademian lehen aldiz etnografia onlinea burutzea eta Euskal Herriaren auzi territoriala askatzeko aukera: hari asko ireki genituen doktorego-tesiari esker. Eta, berriro ere Eusko Jaurlaritzaren beka bati esker, doktorego-osteko ikerketari ekin nion hari hauek lotuz ahal bezain beste korapiloa askatzeko. Aipatu beka atzerrian bi urtez eta hirugarrena Euskal Herriaren egotea eskatzen badu ere, ikerketa honek izan zezakeen potentzialtasuna ikusita eta esku artean genuen aukera paregabeaz ohartuta, doktorego-osteko ikerketaren zuzendari izan dudana Daniel Miller eta biok lehen bi urteetan Euskal Herrira etorri eta bertan etnografia bat egitea erabaki genuen. Muga geografikoez gaindi euskal identitatea-komunitatea-herria nola eraikitzen den aztertu ahal izateko, egokiena mugaldeko herri batean bizitzea zela pentsatu genuen: etnografiari esker bertakoen bizitza eginez, egunerokotasuna jarraituz eta mugaldeko herritar bilakatzuz, eta betiere Internet eta online sare sozialei erreparatuz, euskal territoria ingurune digitalaren garaian marrazteko gai izango ginelakoan.

Datozen orriak, beraz, doktorego-tesian munduan zehar barreiatutako gazteekin hasitako eta doktorego-osteko ikerketan Luzaideko herritarrekin batera aurretiaz aipatutako harien jorsketa dira: ingurune digitala, etnografia eta euskal territoria lantzeko lagungarriak izan daitezkeen ideiak, hain zuzen ere.

2. EUSKAL GIZARTEA, INGURUNE DIGITALEAN

2.1. “*Izena duenak izana du*” eta izen desegokia duenak ezizana du

Polita, eta egia esan, apur bat mingarria ere bada azken hamarkadetan euskal akademian eta euskal gizartean Internet aztertzeke eman den bilakaera ikustea. 2010. urtean gizarte-zientzietatik gai hau aztertuko zuen lehen doktorego-tesia hastean, estimu handian dudan irakasle batek herri honentzat probetxuzko zerbait egitea eskatu zidan; txorakeria hutsa zen Interneten denborarik ez galtzeko. Irrigarria iruditu dezake gaur egungo ikuspegitik, baina oraindik ere Interneten inguruko doktorego-tesi edota ikerketa gutxi egiten dira gizarte zientzietatik; eta politika, generoa edota euskara lantzen dituzten ikerketa gehienetan honek ez dauka ezta kapitulu bat, transbertsala denaren aitzaki pean, gure ezjakintasuna eta ezin-ikusia estaltzen dugularik.

Gaur egun, euskal akademiatik denok begirutzen duguna begi bertsuekin ikusten dugu ingurune digitalari dagokionez. Inguratzen gaituen zerbait izanik ere, ez gara gai hau ikusteko eta, beraz, ez dugu ikertzen, ez dugu neurtzen eta, ondorioz, ez da existitzen. Euskal Herritik ez dugu apenas gizarte zientziarik egiten mundua eta hau ulertzeko eta bizitzeko zeharo aldatu duen Interneten inguruan. Horregatik, kondenuatuak gaude atzerritik heltzen diren diskurtsoak eta kontzeptuak errepikatuz; eta horrela, atzerriko mundu-ikuskerara gure egiten dugu, euskal-identitatea-komunitatea-herria atzerriko teoria eta ikuspegi bidez eraikitzen dugularik.

Mundu mailako unibertsitate eta Gobernuak ingurune digitala aztertzeke institutuak aspaldi sortu zituzten bitartean, gurean gai hauek ez dira ezta ikastola, institutu edota unibertsitatean gizarte zientzien ikuspegitik irakasten (Díaz, 2017b). Eta eskerrak, izan ere, gai honen inguruan ezagutza izan gabe, hau ikertu gabe eta honetan trebatu gabe euskal gizartearen etorkizuneko belaunaldiak oinarri desegokien arabera heztea izango bailitzateke. Besteak beste, Oxford Unibertsitateak Internet Institutua (OII) duen bitartean eta Thailandiak Gizarte Digitalaren Sailburutza duen bitartean, gurean ingurune digitala ulertzeko metafora desegokiak eta arrotzak erabiltzen ditugu. Kataluniak bere autogobernuaren bidez Estatu egiturak sortzen zituen bitartean, gai zehatz honi dagokionez Internet Interdisciplinary Institute (IN3) sortuz, gurean Ekonomiatik eta Segurtasunetik Ingurune Digitala kontuan hartzen bada ere, ia ez dira

diziplina aniztasunetik sortutako ikerketak bideratu: Euskal Herriak Internet garaian habitatzen duen territoria aztertu gabe, Kataluniako herritik oso urrun paratuz.

Euskal Herrian, Interneten lilurak hau mundu ezberdin bat bezala irudikatzen eramaten gaitu: dena posiblea den, edonor izan gaitzeko mundua; edo deitu izan dioten moduan, mundu birtuala. “Birtuala”, “errealaren” aurkakotzat jo izan da ere, eta beraz, Interneten gertatukoak ondorioz gabeko jolas moduan hartu izan dira, “bizitza errealean” ondorioz ez dituen. Hala ere, Euskal Herrian ondo baino hobeto dakigu Interneteko anonimotasunak aspaldi utzi ziola lekua kontrol sozial eta panoptiko digitalari (Díaz, 2015b). Batetik, Interneten dagoen kontrol soziala erraz frogatu dezakegu telebista piztu eta, Twitterren eta Facebooken egindako txantxengatik, euskal herritarrak atxilotuak eta epaituak direla ikustean. Bestetik, panoptiko digitala kontzeptua (boyd, 2002), Jeremy Benthamen panoptikoaren ideiarekin berrikuspen bat da: kartzelako arkitekturak, presoari uneoro kontrol-postu bat begi-bistan izatea behar zion; denbora pasa ahala, kartzelaririk kontrol-postuan izan gabe ere, presoak bere burua zelatatu sentitzen zuelarik. Doktorego-tesian parte hartu zuten gazteen hitzetan, Facebook erabiltzean sentsazio hau bera zeukaten: euskal gazteak etengabe kontrolatuak sentitzen ziren. Hori dela eta, hainbat iruzkin ez zituzten egiten eta, gure kasura etorrira, euskal identitatea eraikitzeko zenbait elementu eta diskurtso ez zituzten praktikara eramaten.

“Dena den ni Facebooken ez naiz asko sartzen politikan. Es que lagun asko dauzkat, baditut lagun batzuk fatxak direnak eta beraiek esaten dute eta ez zait gustatzen. Baina niri ez zait gustatzen nitaz hainbeste jakitea. Pentsa! Es que ez zait gustatzen esatea que “voy a asistir a la manifestacion nacional por los presos”. O sea bai, alde nago baina ez dut mundu guztiak jakiterik nahi. Es que uste dut batzuk oso publiko egiten dutela beraien perfil politikoa, ez?”

Eta oso ondo dago uste dutena esatea baina ulertu behar dute guzti hau kontrolatuta dagoela eta Facebook hasiko dela be bai perfil batzuk ixten. Oraindik ez du egin baina... Es que nik ez dut diskutitu nahi eta esan “ba hau naiz” edo hau esan eta bestea esan” eta publikoki gutxiago. Eta diñozu “Jo! Beraiek egin ahal badute, zergatik nik ez?” Españolitoak eta... baina ez dut nahi, jo ez dut nahi.

Es que hemen askotan erabili daiteke zure kontra, batez ere lan munduan eta atzerrian. Eta hemen badut lagun bat esaten duena nafarra dena eta espñoala eta buf! Eta gogorra da entzutea! Es que izan ditugu engantxadak eta hemen atzerrian ba paso egiten dut eta ez diot ideiaz aldatuko eta niri ere ez, orduan paso. Eta ze zentzu dauka nik Facebookean polemika

bat sortzea dauzkadanean ehun españolito lagun? Eta lagunak dira! Baina ez dut hori bilatzen.” (Nahia, 2011ko irailaren 28a)

Modu honetan, urteetan zehar euskal gizarteak pairatutako zentsura Internet garaian auto-zentsura bilakatu dela ikus daiteke. Are larriago dena, euskal identitatearen eraikuntza atzerriko filtroen bidez egiten dugula, zehatzago izanda, Doktorego-tesian ikertutakoaren arabera, espainiar estatuak indarrez eta beldurra eraginez eraikitako filtroaren bidez. Interneten beraz, ezin dugu nahi duguna egin eta ezin dugu nahi duguna izan. Are gehiago, ez dugu beste inor izan nahi: geure burua eta geure bizitza etengabe publiko egiten dugu online sare sozialen bidez. Ez da soilik estatuen kontrolaren bidez Internet espazio anonimoa ez dela, merkatuaren logika kapitalistak jarraituta geure burua uneoro ageriko egin nahi dugu eta uneoro non gauden eta zer egiten ari garen publiko egiten dugu Facebook, Twitter edo Instagram bezalako online sare sozialen bidez. Panoptiko digitalaren ideia jarraituz, preso perfektuak gara: sozializazio prozesu baten ondorioz gure nahia, desira eta askatasuna jarraituz, hobe esanda, “Nire askatasunaren izenean” etengabeko kontrol, jarraipen eta epaiketa batean bizi gara.

Baina horrek ez du esan nahi online sare sozialetan publiko egiten dugun bizitza bikaina, orekatua eta perfektua gezur hutsa denik; horrek ez du esan nahi antzezpen bat denik: ez behintzat aurrez-aurreko harremanetan geure buruak etxean apaintzen ditugunean baino gehiago, ez behintzat geure eguneroko bizitza publikoko esfera ezberdinetan jarrera, hizkera, janzkera ezberdinak izaten ditugunean baino gehiago (Goffman, 1993, 2006). Online sare sozialetan publiko egiten dugun bizitza ez da gezurra, geure bizitzaren alde bat besterik ez da, alegia. Online sare sozialetan eraikitzen dugun identitatea, beraz, ez da faltsua, geure identitatea eraikitzeko beste modu bat besterik ez da.

Interneten inguruko ikerketa propiorik ezean, sortzen ditugun metafora oker eta erreproduzitzen ditugun atzerriko mundu-ikuskeren harira bueltatuz, Euskal Herrian aipatu Institutuak bezalako erakunde propiorik ezean, kanpotik etorritako oihartzunak errepikatzen mugatu gara: hauek hausnartu gabe bere jatorrizko hizkuntzan erreproduzitzen eta, marko kulturala kontuan izan gabe, euskara eta euskal kultura ukatuz. Hizkera eta hizkuntza propioa aplikatu gabe, geure ikuspegia eta nortasuna txertatu gabe, geure etorkizuna mugatu egin dugu geure historia eta kultura ukatuz. Nola ulertu bestela Whatsapp, Facebook eta Twitter izendatzeko “sare soziala” hitza erabiltzea? Euskal Herrian, dirudienez, Ipar Amerikako Estatu Batuetan eta espainiar estatuan ez duten batzeko modu eta sare sozial mota bat genuen enpresa pribatu hauek agertu baino lehen: kuadrilla. Eta horregatik, Euskal Herrian, “sare sozialak” eta “online sare sozialak” bereizi beharra dago.

Era berean, urteek aurrera egin dute, teknologia gehiago agertu dira eta hauek egunerokotasuneko bizitza soziala, politikoa, ekonomikoa edota juridikoa baldintzatu

dute eta, horiek ulertzeko, teoria berriak sortu egin dira mundu mailan. Baina Euskal Herrian oraindik ere “teknologia berriak” hitza erabiltzen dugu: noiz arte izango da berria Internet? Zenbat urte igaro behar dira telefono mugikorra berria ez dela esateko? Zenbat belaunaldik erabili behar dute emaila teknologia berria izateari uzteko? Gizarte kapitalista aurreratuetan nagusi den “hemen eta orain” filosofiak ez digu perspektibaz jokatzeko uzten, gizateriaren gorenean, historiaren momentu aurreratuenean gaudela sinistarazten digu eta gure aurrekoek egindako lana mespretxatu edota zuzenean ikusteko gai ez izatera kondenatzen gaitu. Soilik horrela uler daiteke “natibo digitalak” gazteok izatea eta ez pertsona helduak: natiboak aurretiaz lurralde horretan bizi zirenak badira, Interneten sorrera eta eboluzioa bizi izan dutenak izango dira natiboak, hau da, pertsona helduak; eta ez berez teknologia zehatz batzuekin jaino, hazi eta hezi garen gazteok.

Ondorioz, mundua eta munduan egoteko eta egiteko moduak aldatu dituen tresna eta espazio baten aurrean, aurreko garai bat deskribatzeko erabiltzen genituen kontzeptu berak erabiltzen ditugu. Jakin badakigun arren hauek “kontzeptu zonbiak” (Beck eta Beck-Gernsheim, 2003) direla: hilak daudela, erabilgarriak ez zaizkigula; baina gure irudimen faltagatik eta kontzeptu berriak sortzeko gaitasun ezagatik bizirik mantendu behar ditugunak. Euskal Herrian, gainera, atzerrian sortutako erabilgarriak ez diren kontzeptu hauek gurean erreplikatzeko ditugu: euskal gizartea deskribatzeko Ipar Amerikako Estatu Batuetako edota espainiar estatuko kontzeptuak erabiliz, Euskal Herria eta euskal gizartea Ipar Amerikako Estatu Batuak edota espainiar estatua bilakatuz.

1.2. Euskal gizartea, mundu globalizatuan

Erraza da kritika egitea, erraza da aurka egitea. Onar dezagun gure ezjakintasuna, gure gaitasun eza egungo gizarte konplexuetan kokatzerako orduan. Eta horrela, gure aurrekoek sortutako, teorizatutako eta eraikitako proposamen, erakunde eta politikak ikusteko gai izango gara. Zintzoak izan gaitezke, gure egoak moztu ditzagun eta gure lana egin dezagun: erakundeen, batez ere publikoen, laguntzarekin euskal gizartearen errealitateak deskribatu, arazoak identifikatu eta, kapazak bagara, konponbideak proposa ditzagun.

Ez da lotsatzeko ezer, izan ere, gaur egungo gizarte postmodernoa ziurgabetasuna eta etengabeko mugimenduarengatik ezaugarritzen dira. Izenak berak agerian uzten du: post-moderno, modernitatearen ostean datorrena. Izenak berez ez du inongo izanik adierazten, bai ordea ez-izan bat. Gizarte-eredu baten hurrengoa dela azaltzen du, oraindik bere burua definitzeko gai ez dena. Erabat ulergarria dena. Semiotikak erakutsi bezala, istorioak bukatzean soilik kontatu daitezke eta, beraz, istorioaren barnean egonda ezinezkoa da izenburu egokia jartzea.

Modernitatean erakundeak ziren nagusi: erakunde laboralak, politikoak, erlijio-tsua... nolana hikoak, baina erakundeak. Pertsonaren bizi-ibilbidea zehaztua zegoen

eta honek ez zuen bere etorkizunean gehiegi pentsatu behar: adibidez, lan batean sartu eta bertan bukatuko zuen hil arte (Sennet, 2006, 2007). Enpresak ematen zion identitatea langileari; erakundeak ematen zion identitatea pertsonari, izan politikoa, nazionala, ekonomikoa. Gaur egun, ordea, “ikasten ikastera” bideratzen gaituen sistema baten baitan auskalo gure bizi-laborala zein izango den: ez dugu ezagutzarik izango, bai ordea moldatzeko gaitasunak; prekarioak, hots, flexibleak, izateko gaitasuna. Honek, geure buruak etorkizunean proiektatzera edo irudikatuzera eramaten gaitu, hobe esanda, behartzen gaitu: erakundeek inposatutako errelatotik askatzeak erabaki behar izatea eragin du, eta honek, erreflexibitatea garatzea. Enpresa horretan edo bestean lan egingo dut (aukera badago, jakina)? Ezkonduko ote naiz? Zenbat aldiz? Umeak (ez) izan edo erosi (gogorra izan arren, gaur egungo sistema kapitalistak ematen duen aukera) egingo ditut? Akabo bizimodu lineala eta akabo segurtasuna: “arriskuaren gizartean” (Beck, 2006) bizi gara.

Erakundeen indar galera erlatiboa (indarra guztiz galdu ez dutela ondo baitakigu estatu espainol eta frantsesa bezalako bi erakunde indartsuren baitan gauden herria izanik) Internetekin agerian geratu zen. Izan ere, Internet “autonomi espazio” (Castells, 2012) edo “bosgarren botere faktiko” (Dutton, 2009) bezala izendatu da subjektuak erakundeen logiketarik kanpo dimentsio politiko, ekonomiko edota kulturean aritzeko duen gaitasunagatik. Era berean, Interneti esker ere, globalizazioak eragin zuen denbora eta espazioaren berdefinizioaren (García, 1999) beste adierazle nagusia da: klik huts batekin munduaren beste aldean dagoen pertsona batekin komunikatu gaitzke momentuan bertan. Gure kasuan, Doktorego-tesian parte hartu zuten munduan zehar barreiatuta zeuden gazteek, atzerritik Internet bidez Euskal Herriko familia eta lagunekin konektatzeko aukera azaldu zuten, eta horrek etxean sentiarazten ziela (Díaz, 2016a). Helsinkitik Txinara lan egitera mugitu zuten gazte honek atzerri mota ezberdinak bizi zituela azaltzen du:

Ta orain Txinan.

Ba, gehiago erabiltzea gustatuko litzaidake.

Baina zentsura, ezta?

Bai, hori da. Zaila dela, uzten nautenean erabili dezaket. Helsinkin Facebook erabiltzea zen zerbait... egunerokotasuneko parte zen. Ta horregatik askotan txutxu-mutxuentzako erabiltzen nuen... ta orain, jendeaz jakiteko erabiltzen dut soilik. Orain “luxu” bat da. Baina orain ilusio gehiagorekin sartzen naiz! (Erasmus Kidea 3, 2012)

Helsinki Facebookeko erabilera, egunerokotasuneko praktika barneratua zena, Txinan luxu bat da. Facebookera konektatzea luxua da eta, horrek, atzerrian epe motz baterako dauden gazteen bizimoduetan eragin zuzena du: herrikoekin hitz egitea, herrian sentitzea eta bizipenen berri ematea luxu bat da. Azken batean, beste gazte batek azaltzen duen moduan, “Ezagutzen duzunak ematen dizu egonkortasuna, ezta?” (Nahia, 2012). Eta horixe bera da atzerrian gazte hauek lehen momentu batean ezagun duten espazio bakarrenetarikoa: Facebook, Facebookeko lagunak eta Facebookeko harremanak. Mundu globalizatuan, ziurgabetasun eta aldaketez beteriko munduan, munduan biraka dauden euskal herritarrentzat, Internet da herrira eta sustraiei konektatuta mantentzen dien heldulekua edo tresna, izan ere, espazio horretan aurkitzen baitira haien lagun eta senideekin.

1.3. Ingurune digitala: tresna, espazioa eta gizarte-harremanak

Internetez hitz egitean, beraz, hau tresna eta espazio gisa identifikatu beharra dugu. Euskal identitatearen kasuan, hau eraikitzeo tresna da (idatziz, bideoz edota argazki bidez) eta hau eraikitzen den espazioa ere bada: “Facebookeko horma” adierazpenak erakutsi bezala, bertan iltzatuz, ideiak plazaratzeko espazioa ere bada. Horrela beraz, Informazio eta Komunikaziorako Teknologia, teknologia baina zerbait gehiago dira, herritarrek habitatzeko eta bizi duten espazioa ere bada.

Izaera bikoitz honek, gainontzeko hedabideetatik bereizten du Internet eta orain arte ikus-entzunezkoak zein komunikatzeko tresnak eta hedabideak ulertzeko genituen marko kontzeptualak aldatu ere. Izan ere, telebista, irratia edota egunkarian ez bezala, herritarrek momentu eta espazio berean egon daitezke, iritziak trukatzuz, igorle-hartzaile harremana alde bikoia bilakatuz. Berritro ere euskal kasura etorrituz, egunkaria nazio-identitate erreferenteak finkatuz ehunka kilometrotara dagoen biztanleria batzeko eta nazioa eraikitzeo tresna bikaina zela bagenekien (Anderson, 1993). Interneten, gainera, biztanleriak berak nazio-identitate erreferente horiek partekatu, negoziatu eta birdefinitu ditzakeela badakigu eta, era berean, nazioa batzeko bidean beste pausu bat ematen dela ere: herritarrek, aurrez aurre ez bada ere, espazio bera partekatzeko, komunikatzeko eta nazioa eraikitzeo aukera dutela.

Internet mundu mailan espazio bera izan arren, herriaren arabera hau erabilteko eta bizitzeko edo habitatzeko moduak ezberdinak direla azaldu zigun Daniel Millerrek (2011). Trinidad eta Tobagon egindako ikerketan Internetek, eta bere ikerketa-kasuan Facebookek, Erresuma Batuekin alderatuz forma eta erabilera ezberdinak dituela ondorioztatu zuen; are gehiago, izena bera ere aldatzen zela ikusi zuen: Facebook beharrean, bertakoek “Fasbook” deitzen baitzioten. Hori dela eta, ideia hau jarraituz, Doktorego-tesian Euskal Herriko kasua azaltzeko, “FaceGuk” hitza erabili nuen: guk, euskal herritarrok, gure hizkuntza, historia, errealitate eta barne zein kanpo

eragin politikoan ondorioz online sare sozial hori erabiliz eta biziz euskal identitatea-komunitatea-herria eraikitzeke ditugun moduak azaltzeko. Are gehiago, online sare sozialen erabilera herriaren arabera aldatzen dela baldin badakigu, pentsa daiteke ere adinaren, generoaren, arrazaren edota posizio sozio-ekonomikoaren arabera alda daitekeela; herri honetan online sare sozialen inguruan hitz egin ahal izateko ikertzeke dugun guztia gogoratu beharra dugularik.

Beste alde batetik, Internet berezia izan arren, gainontzeko esparruetatik berezia ez dagoen espazioa dela azpimarratu beharra dago. Aurrez-aurreko harremanak eta Internet bidezko harremanak bi plano ezberdinetan gertatzen diren arren, aurretiaz elkar lotuta daudela ikusi dugu espazio onlinean egindako ekintzek leku offlinean ondorioak dituztelako (Twitterren idatzitakoengatik kartzelatua izateko arriskua baitago, adibidez). Horregatik, bi plano ezberdinez hitz egiteak ez du esan nahi zer ikusirik ez dutenik. Nolabait esateko, sukaldea eta komuna bi gela ezberdin badira ere, eta batean zein bestean ditugun praktikak zeharo ezberdinak diren arren, biak ala biak, etxe beraren parte dira.

2000. urtetik aurrera, zenbait autorek leku offlinea eta espazio onlinea berezi ezinak zirela esan zuten: bata bestean eragina duelako, elkar elikatzen direlako eta aldi berean bi dimentsio horietan bizi garelako. Uztarketa horretaz aritzeko, “hipe-espazioa” (Gómez, 2002) kontzeptua erabili zuten. Azken aldian, eta Informazio eta Komunikaziorako Teknologiek (IKT) herritarrengan izan duten errotze maila ikusita, harreman sozio-teknologikoen (Miller, 2011) hitz egiteko beharra agertu da: telefono mugikorrak, adibidez, gure bizitzaren erdigunean kokatu dira, hauen bidez harreman sozialak, ekonomikoak edota politikoak ditugularik; 24 orduz konektatuta gaudenez, konektatuta bizi garelako, “konektatzea” eta, batez ere, “deskonektatzea” bezalako hitzek garrantzia galdu dutelarik. Horregatik, ezin daiteke pentsatu Internet gure bizitzetatik kanpo dagoen espazioa denik, edota gure gainean dagoen “hodeia” denik zeinetan dena den gaseoso eta eskuekin heldu orduko ihes egiten digun. Inondik inora ere: Interneten kable-sareak grafikoki erakutsi bezala, honek badu bere alde materiala. Are gehiago, Internet gure bizitzaren alde guztietan dagoen zerbait dela esan daiteke eta, horregatik, “hodeia” kontzeptu beharrean, askoz egokiagoa litzateke atmosferaz hitz egitea.

Ikuspegi horretatik abiatuta, beraz, Internet atmosfera bat den heinean eta bizitzaren esfera guztiak ziprztintzen dituen zerbait denez, ingurune digitalaz hitz egitea komenigarriago da. Izan ere, ekonomia, politika, kultura, justizia, hezkuntza eta pentsa dezakegun beste edozein dimentsiok ingurune digitalarekin zer ikusi dauka. Horregatik, Euskararen Adierazle Sistemaren ikerketatik honako definizioa sortu zuten: *“pertsonek artean, eta, makinak eta pertsonen artean komunikazio eta interakziorako erabiltzen diren baliabide digitalek osatzen dute ingurune digitala”*.

Ondorioz, ingurune digitalak bizitzaren esparru eta harreman guztiak barnebiltzen baditu, honetaz hitz egitea dagoeneko ez da gazteen kontua, edota -gaizki paratutako kontzeptua gogoratuz- natibo digitalen kontua, edota “freak” batzuen kontua, edota teknofilo zoroen kontua. Ez. Ingurune digitalaz hitz egitea demokraziaz, justiziaz, askatasunaz, burujabetzaz edota parekidetasunaz hitz egitea da. Eta hortik abiatuta, beraz, gure begien aurrean transformatu zaigun gizartea ulertzeko eta eraldatzeko kontzeptu eta marko teoriko berriak eraiki behar ditugu. Egungo errealitatea ikusteko betaurreko berriak behar ditugu, errealitate hau deskribatzeko kontzeptuak berriro behar ditugu eta, jakina, errealitate hau ulertzeko tresneria metodologikoa egokitu beharra dugu.

3. ETNOGRAFIA, ETNOGRAFIA DIGITALA, ETNOGRAFIA

3.1. “Teoriak ikerketak egin baino lehen formulatzen baditugu, teorietan galdu eta gertaerak manipulatzeko arriskuan gaude”

Denok ikusten duguna beste begi batzuekin ikustea da zientzia, bai. Eta begirada hau, derrigorrez, ikerketaren betaurrekoetatik egin beharra dago. Bestela, zientzia gabe eta ikerketa gabe, orain arte bezala, Interneten inguruko diskurtso ponpoxoetan moztortutako ideietan galduko gara, aurrean dugun argazkia difuminatuagoa ikusiz. Horregatik, zientzia beharrezkoa dugu, metodologia, On Joxe Miguel Barandiaranek esan bezala, norberaren uste, asmo eta nahiekin gertaerak ez manipulatzeko eta ondorioz errealitatea era egoki batean aztertu ahal izateko.

Zer esan etnografiaz eta gure aurrekoek egindako lan bikainaz aldizkari honetan? Ezer gutxi; hobe esanda, ezer ere ez: lana aitortu, ziatu eta ahal bezain beste ikasi. Ixildu. Eskertu. Eta ahal den neurrian, haiei esker beste begi batzuekin ikusitakoa gaur egungo egoerara aplikatu eta etorkizuna marrazten saiatu. Izan ere, IKT, Internet eta ingurune digitalari buruz aipatutako ideia hauek guztiak, etnografia bera ulertzeko era ere aldatu dutela esan daiteke: ingurune digitalak gizarteak aldatu baditu eta horregatik kontzeptu teorikoak egokitu badira, arrazoizkoa da pentsatzea tresneria metodologia ere moldatu beharra dugula.

Lehenik eta behin, modu zabar batean esanda, etnografia klasikoa daukagu: inperio batek bere urrutiko kolonietan zer gertatzen ari zen jakiteko ikertzaile bat hango komunitatearekin bizitzera bidaltzen zuena. Urrun egonda eta hain ezberdinak izanik, haiekiko kontrola mantentzeko, inperioek antropologoen begirada eta azalpena behar zuten, komunitatea ulertuz hau kontrolpean mantendu ahal izateko. Boterearen abiapuntu horretatik, jarraian etorri ziren etnografiak oso antzekoak izan ziren: komunitate exotiko batera joan, hango biztanleekin bizi eta haien praktikak, diskur-

tsoak, istorioak, bizipenak ezagutzea. Apurka-apurka, antropologoen erreflexibotasun mailagatik eta garatzen joan ziren enpatia eta (auto)kritikotasunagatik, tribuen parte bilakatzen joan ziren, hasieran Evans-Pritcharden kasuan ikusi bezala, ikerketa-objektua eta ikertzaileak bat egin arte.

Hiriaren agerpenak eta hedatzeak etnografiari beste urrats bat ireki zion. Hiriko anonimotasunean eta migrazio masiboen testuinguruan, herri berean bertan ezezagunak eta ulergaitzak ziren tribuak eta auzoak agertzen joan ziren heinean, etnografiak atzerriko tribu exotikoetatik aberriko tribuetara igaro ziren ere. Horregatik, Euskal Herrian egin diren etnografiak euskal gizartea tribalizatzeko saiakera zirela kritikatzaren zutenen aurrean, ulertzekoa da XX. mendean zehar Euskal Herriko hainbat txokoetan etnografiak egin izana; hau da, euskal herritar gehienek inoiz zapaldu gabeko herrietan antropologo batek hilabete batzuetan zehar bertan bizi izana. Euskal gizartea inkesta bidez neurtu edo sakoneko-elkarrizketa bidez galdetzea bezala, hau ezagutzeko asmoz erabilitako metodologia da etnografia. Izango da, agian, oraindik ere etnografia has-tapenetako metodologiarekin lotzen dela; edo izango da, agian, zientziaren ustezko objektibotasunetik teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak serioago hartzen ditugula eta hurbilpen etnografikoa, ordea, artea bezala, edozeinek egin dezakeen zerbait bezala ulertzen dela; edo izango da, seguruenik, gurean etnografia gutxi egiten direla gaur egun.

Nolanahi ere, etnografia inperioen metodologia zela ikusita, ikerketa-teknikek atzetik duten marko kontzeptuala eta aurretik sortzen duten mundu ikuskera azpimarratu beharra dago. Soziologia bera kaos egoera batean ezartzen da diziplina moduan: Frantziar iraultzaren ostean batu beharreko herri bat zegoen eta, horretarako, lehen pausua zenbatzea zen; herritar kopurua, ume kopurua, gizon eta emakume kopurua zenbatzea, hain zuzen ere. Gaur egungo inkestek ere, zenbaketa dute helburu, ez zergatik edo zertarako edota zelan erantzutea, ez; zenbatzea: zenbatek uste duten ideia zehatz bat edota zenbat dauden politika zehatz baten kontra. Zientzialaria, hemen, gizartetik bereizten da, herritar xeheak baino ezagutza handiagoa dauka eta horregatik jende arruntak bere sen arruntetik ulertzeko moduko galdera sinpleak eta hutsak formulatzen ditu: ez dauka ezer berririk ikasteko, bai ordea aurretiaz dakiena neurtu eta berresteko asmoa. Datu hauekin grafikoak egin -heritarrek bisualki uler dezaten, ez daitezen hitzez osatutako testuekin galdu- eta normala eta anormala zer den esateko gai dira: gehiengotik ateratzen dena anomalia bat da eta ulertzeko gai ez dena baztertu beharra dago.

Euskal identitatearen kasuan, zientzialariek errealitate berriak sortu dituzte inkestetako item edo kategorien bidez. Galdetegietako “zer zara euskalduna, espainola, euskalduna espainola baino gehiago, espainola euskalduna baino gehiago, biak berdin” galdera klasikoak nazio-identitatea zenbakiz neur daitekeela sinestera eraman

gaitu: euskal identitatea “%100 Basque” edo “8 apellidos vascos” bezala, kiloka pisatu eta metroko neurtu ahalko bagenu bazela. Gainera, euskal identitatea neurtuz, sentimenduen alorrera mugatzen dute: euskal identitateaz hitz egitea demokraziaz, hizkuntzaz, eskubideez, justizia sozialaz eta burujabetzaz hitz egitea ez balitz bezala. Gainera, euskal identitatea neurtu eta sentimenduen dimentsiora mugatzen duten bitartean, espainiar eta frantziar identitatea ez dute ezta kuestionatzen ere: berezkozat jotzen da, naturalizat hartzen da, euskal identitatea ez bezala, objektibotzat.

Eta guzti hau gutxi ez balitz, euskal identitatea ahuldu eta espainiar eta frantziar identitatea indartzea gutxi ez balitz, herritartasun mota berriak sortzen dituzte: berez hizkuntzari lotuta egon arren, euskalduna euskaraduna dela defendatzen duen herrian hizkuntza eta nazio-identitatearen arteko lotura argia dela eta, “euskaldun berriak” kontzeptua sortuz; jakina, erdara ikasten ari diren etorkinak ez dira “espainiar edo frantziar berriak”. Modu honetan, beraz, euskal herritarrok eta zer esan esanik ez euskaldunok, inkesten arabera anomalia bat gara eta gure herrian bertan arrotzak gara. Eta guzti hau, Euskal Herriko administrazioek euskal herritar guztien diruarekin ordaindutako euskal ikerlarien ikerketei esker.

Horregatik, teknika kuantitatiboak erabiltzean, hauekin sortu ahal ditugun errealitatez kontziente izan behar gara. Izan ere, aurreko paragrafoak ez dira teknika kuantitatiboak ez erabiltzeko deia, guztiz kontrakoa: hauek duten boterea ikusita, euskal herritarren nahi eta beharretara moldatzeko proposamena da. Inkestekin errealitatea eraikitzeko aukera badugu, sor dezagun geure errealitate propioa atzerriko ikuspegi eta nahietatik kanpo.

Etnografiara bueltatuz, ikertzailearen papera zeharo ezberdina da hemen. Ez ditu aurrez galdera batzuk zehaztuta, ez inkesta kuantitatibo ez eta sakoneko-elkarriketan bezala. Zelan izango ditu galderak zehaztuta, gizartea ezagutzen ez badu? Prozedura akademiko desegokia litzateke. Are gehiago, nola galdetuko die edo mugatuko die errealitatea bera baino askoz hobeto ezagutzen duten herritarrei? Prozedura humano desegokia litzateke. Etnografian, ikertzailea herrian agertu, aurkeztu eta bizi egiten du. Pentsa biluzte maila zelakoa den. Aurre-ezagutzarik gabe, arrotz totala izanik, ezagutzen ez duzun eta inork ezagutzen ez zaituen herri batean agertu eta zure asmoen berri eman. Duda gabe, estralurtarra zara, eta zeu zara tribu bateko kide exotikoa: kapitaletik heldutako azkar ustezko bata zuridun zientzialaria.

Tresna bakarra entzumena da. Hitz egin beharrean, azaldu beharrean, haien egoera zein den esplikatu beharrean, haiek esateko dutena entzutea duzu bide bakarra. Ez duzu ezer ulertzen: haien hizkera, haien bromak, haien ohiturak, haien edariak eta janak ezin dituzu sartu zure eskema mentaletan. Zeharo galduta zaude, eta normala da, ez duzu inongo helduleku ez teoriko, ez pertsonal, ez eta sozialik ere. Tabernan, kalean, elizan elkarrizketa baten parte egiten zaituztenean ezin duzu hau jarraitu. Eta

konfiantza gehiago hartzen dutenean, herritarrek zutaz barre egiten dute pista falsuak emanez edo egin behar ez diren gauzak egitera bultzatuz. Iragate erritua gainditu duzu, zutaz barre egiteak pareko hartzen zaituztenaren seinale da. Orain bai, segi entzuten. Bi belarri eta aho bakarra izanik, hitz egiten dugun bikoitza entzun beharko baikenuke. Eta entzutearen eta ikustearen poderioz, hasiera batean ezer ez ulertzetik, herriak ohore hori ematen badizu, beste herritar bat zara. Arrotza eta bertakoa aldi berean, kanpoko ikuspegia eta barruko bizipenak dituen pertsona izanik, egoeraren ikuspegi orokorragoa duzu. Hau guztiori, gainera, handinahikeri gabe, ikertzaile gisa herritarren pare izanik; are gehiago, herritarrei haien istorioa kontatzeko eta errealitatea deskribatzeko ahalmena emanez eta zeure burua desjabetuz, desenpoderatuz.

3.2. Euskal Herriko lehen online etnografia

Hirien indartzearekin bezala, Interneten agerpenarekin ere etnografiak beste pausu bat izan zuen. Online munduan ere komunitateak zeudela ikusi zuten eta, horregatik, lehenengo “etnografia birtualak” egiten hasi ziren (Hine, 2004). Hauetan, aipatu etnografia klasikoetan bezala, Interneteko komunitate batean sartu, honetan bizi eta kideen diskurtsoak, praktikak eta ohiturak aztertzen ziren: jolas birtual bateko komunitateko kidea izanik edota, nire kasuan, Facebookeko komunitate baten kide bilakatuz.

Doktorego-tesiaren ikerketa-objektua (euskal identitatearen eraikuntza) eta ikerketa-espazioa (Internet) ikusita, ikerketa aitzindaria izanik, esplorazio-metodologia gisa abiatu beharra zegoen: ez teknika kuantitatibo ez eta teknika kualitatibo bidez ezin nuen espazio ez-ikertu batean herritarrek zituzten diskurtsoak, praktikak eta ohiturak ezagutu. Hau guztiori, ikerketa-bide hauek saiatu ostean esan dezaket, izan ere, lehen saiakera euskal erakundeek egindako inkesten datuen ustiaketa izan zen eta bigarren pausua nire kabuz euskal gazteekin sakoneko-elkarrizketak eta eztabaida-taldeak burutzea: diskurtsoaren bidez, euskal identitatearen eraikuntzan hasi (zelan eraikitzen den hitz egitetik) eta euskal identitatearen definizioaren amaierarik gabeko elkarrizketan bukatzen genuelarik. Horregatik, ikerketan eta euskal identitatearen gaian aurrera egin ahal izateko, etnografia klasikoetako antropologiak bezala, esploratzailea izango nintzen; baina euskal gizartea aztertuz, nire komunitatean; eta Internet tresna izanik, nire herritik.

Bide berri bat esploratzean, komenigarria da aurrekoek egin duten lana ezagutzea; Euskal Herrian ezezaguna izan arren, mundu mailan etnografia mota honen oinarriak ezarrita zeuden (Miller eta Slater, 2000; Kozinets, 2010). Irakurtzeaz gain, online etnografia ikertzen eta irakasten zen unibertsitateetan ikerketa-egonaldiak egin nituen eta bertan ikasi nuen etnografia birtualaz hitz egitea baino, honen alde erreala zela medio, egokiagoa zela online etnografiaz hitz egitea. Era berean, Internet ikerke-

ta-espazio gisa zabalegia zela ikasita, hau Facebookera mugatu nuen garai horretan euskal gizartean online sare sozial erabiliena zelako.

Irizpideak hartuta, Facebookeko euskal gazteen komunitate bat aurkitu beharra nuen. Aurkitu eta ez, beste ikerlari batzuek egin bezala, sortu edo asmatu. Etnografian etika derrigorrezko araua bada, aurrez-aurreko harremanak izango ez dituzun online etnografiako pertsonekin are garrantzitsuagoa da eta, horregatik, ezin da ikerketaren ez eta ikerlariaren asmoa ezkutatu edo estali. Gainera, modu honetan ere, ikertzaile-subjektu-jakintsu eta ikertu-objektu-ezjakintsu posizioak erreproduzituko lirateke, herritarren ezagutza baztertuz, hauei hitza ukatuz eta etnografiaren oinarriak apurtuz. Arriskuak ditu metodologia honek, eta onartu beharra dago: ikertzaileak bere burua maila pertsonalean eta akademikoan biluzten du. Izan ere, konfiantzazko giroa sortzeko beharrezkoa da, komunitateko kideei eskatu bezala, norberak bere barrua irekitzea. Gainera, Internet garaian, ikertuek haien iritzia edota ikerketaren berri eman dezakete online sare sozialetan, modu honetan, teknika kuantitatibo eta kualitatiboekin ez bezala, ikerketa birbideratzeko aukera dutelarik. Mehatxu moduan har daitekeena, ordea, ikerketan aurrera egin ahala aukera dela ezagutu nuen: ikertuek beraiek, hila-beteetan zehar garatutako harreman estuari eta ikerketa propio egiteari esker, ikerketa-ildo berriak ireki baitzituzten. Era berean, online etnografiak aurreko etnografiekin dituen ezberdintasunei dagokionez, ikerketa-espazioa bera ikerketa-tresna izateko gaitasuna dela ikusi nuen: landa-koadernoan hainbat ideia idazteaz gain, Facebooken bertan ere, aztertzen ari nintzen espazioan bertan, idatzizko notak, argazkiak edota bideoak gordetzen nituen.

Aipatu komunitatea aurkitzeko, lehen pausu logikoa Facebook kontua sortzea zen: doktorego-tesia hasi arte ez nuen nire datu pertsonalak eta harreman sozialak pribatizatzen, kontrolatzen eta saltzen dituen enpresa baten doako langilea izan nahi. Nire lagunak eta euskal gazteek hau zergatik-zertarako egiten zuten jakiteak ikerketan gehiago murgiltzea eragin zidan, erronka soziologiko ezin hobea iruditzen zitzaidan. Kontua sortu eta neure lagunak behatzen hasi nintzen. Pertsona hauekin nuen hurbiltasunagatik, balirudike zientziaren azpitik kokatutako erabakia izan zela, baina lagunak beharrean Facebookeko-lagunak zirela kontuan izanik irudia aldatzen da: hasierako 100 Facebookeko lagunetatik soilik hiru edo lau pertsonekin nuen harreman jarraitu bat, are gehiago, ia guztiak aspaldian ikusi gabeko pertsonak ziren. Nire Facebookeko profileen nire asmoen berri emanez, lehen pausuak ibili nituen online sare sozial horretan: “atsegin dut” botoia sakatuz eta, maila pertsonalean oso lotsatia naizen aldetik, eduki (idatzizko iritzi edo nire argazkiak) oso gutxi partekatuz. Lehen egun horietan, gainera, espazio eta harreman-mota berriak izanik, ez nekien era egokian aritzen ote nintzen edo nitaz espero zena egiten ari nintzen.

Nolanahi ere, aurretiaz dakizunetik ezer berria ateratzea zaila denez, helburu nagusia nire hurbileko ezagun sarea gainditzea zen. Horretarako, euskal identitatea eta komunitatearekin zer ikusia zuten hainbat talde publikoen kide egin nintzen eta heltzen zitzaizkidan lagun-eskaera guztiak onartu (eskaria egindako pertsona gus-tuko ez izan arren edota zuzenean ez ezagutu arren). Modu honetan, behaketari esker aurkitzen joan nintzen diskurtso eta praktiken arabera tipologia bat sortzeko gai izan nintzen. Batetik “militanteak” zeuden (alderdi eta ideia politikoekin lerrokatutako ideiak partekatzen zituzten gazteak), bigarrenik “banalak” (umorearen bidez euskal identitatea eraikitzen zutenak), hirugarrenik “instrumentalak” (ni neu bezala, interes pertsonala jarraituz euskal komunitatearekin lotutako edukiak partekatzen zituztenak) eta laugarrenik “atzerrikoak” (Euskal Herritik kanpokoak).

Tipologia honek bidea jarraitzen lagundu zidan. Diskurtso eta praktika hauen atzean zeuden gazteekin harremanetan jartzzen hasi nintzen eta, horrela, ate batzuk itxiz eta beste batzuk irekiz etnografiak berak ikerketa bideratu zuen. Hasiera batean, gazte hauek zuten disposizioagatik perfil “militantea” eta “atzerrikoetan” zentratu nintzen; are gehiago, euskal identitatea, beste behin ere, soilik ikuspegi politiko tradizional batekin lotzearen beldurragatik, bigarren taldean zentratzea erabaki nuen. Bidean ematen diren urratsak, ez onak eta ez txarrak, urrats ezberdinak, ikerketa ezberdinak egitera eramaten zaituzten bide ezberdinak besterik ez. Hartutako bideak Nahia ezagutzeko aukera eman zidan, beste 42 gazterekin batera, Eusko Jaurlaritzako beka bati esker munduan zehar enpresa ezberdinetan praktikak egiten zegoen gaztea. Eta baita Itsaso, Julen eta Ostebi ere, beste arrazoi ezberdinengatik atzerrian zeuden gazteak.

Azkenengo hiru gazte hauekin sakoneko-elkarrizketak burutu nituen eta baita atzerrian zeuden bitartean eguneroko bat idaztea eskatu ere: atzerriko sentimenduak, Facebook eta euskal identitatearen inguruko ideiak apuntatuz, egingo genituen elkarrizketak mamitsuagoak izateko. Era berean, nik neuk ariketa erreflexibo bat eginez, nire etnografo landa-koadernoaz gain, atzerrian ikerketa-egonaldian zegoen euskal gazte moduan mota honetako koaderno bat idatzi nuen, modu natural batean “auto-etnografiari” ateak irekiz. Nahiak, gainera, bere beka-kideekin Facebookeko talde pribatu bat zuela azaldu zidan: *“bekaren eta lanaren inguruko kezkak argitzeko eta Euskal Herriarekin lotura mantentzeko”* (Nahia, 2012). Bidea eginez, helmugara heldu nintzen: beharrezkoa nuen Facebookeko euskal gazteen komunitatea aurkitu nuen, munduan zehar barreiatuta zeuden gazteek espazio bera partekatzeko asmoz sortutako komunitate bat, hain zuzen ere.

Talde horretan sartzeko baimena eskatu eta onartua izan bezain pronto nire asmoen berri eman nien. Lehen hilabeteen zehar, behaketari ekin nion, taldearen eta taldekideen funtzionamendua eta barne-logikak ezagutzeko; oinarri horri esker, behaketa parte-hartzaileari ekin nion gainontzeko kideak bezala, atzerrian nituen sentrazioak

azalduz eta gainontzeko edukietan komentarioak eginez. Lau hilabeteren ostean, taldeko kide aktiboekin harreman sakonagoa izatea erabaki nuen, sakoneko-elkarrizketen bidez egin genuena; zehatzago izanda, distantzia geografikoa zela eta, Skype bidezko elkarrizketen bidez. Tresna honen aukerez baliatuz, kamara itzalita hitz egitea nahia-go zuten zazpi kideek, aurrez-aurreko elkarrizketetan ez bezala, aurpegia estaltzeak barneko sentimenduetan sakontzea errazten baitzien. Beste lau hilabeteren ostean, bederatzigarren hilabetea, diskurtsoak errepikatzen ari zirela ikusita, elkarrizketak utzi eta landa-lana bukatutzat ematea erabaki nuen.

Online etnografiari esker, beraz, teknika kuantitatibo eta kualitatiboen bidez jasotzeko oso zailak izango ziren diskurtsoak eta behatzeko ezinezkoak izango ziren praktikak, jarrerak eta ohiturak ezagutu ahal izan nituen. Eta garrantzitsuagoa dena, bertan parte hartu zuten gazteei esker ideia teoriko berriak garatu ahal izan nituen: mundu mailan geografikoki barreiatuta egonda ere espazio bera partekatzen zuen komunitatetik abiatuz, euskal gizarteak ingurune digitalaren garaian habitatzen duen territorioa intuitu ahal izan nuen. Ondorioz, hasiera batean kolonia ingelesak ezagutzeko erabilitako metodologia gaur egungo euskal herritarren esku jarritz, gure herria beste begi batzuekin ikusteko aukera izan genuen: zientzia egiteko aukera zientzialarien monopolio izatetik herritar ororen aukera izanik, euskal identitatea-komunitatea-gizartea-herria aztertzeko, deskribatzeko eta, ondorioz, eraikitzeko ikuspegi atzerritar eta arrotz baten bidez egin beharrean logika propioetatik eginez.

3.3. Etnografia digitala, hau da, etnografia

Ikerketan aurrera egin ahala, aukera izan nuen etnografian are gehiago murgiltzeko eta egindako hainbat akats identifikatzeko. Nagusia izenari lotuta zegoen, eta gure herrian dakigun moduan, izenak duena izana du. Online etnografiaz ari nintzen etnografia klasikoetatik bereizteko asmoz, ni neu Interneten liluran erorita, momentu horretara arte egin gabeko etnografia eredu batez ari bainintzen. Etnografia burutzeko espazioa eta etnografia bera nahasten nenbilen, ordea. Izan ere, etnografiaren oinarriak, elementuak eta jarraitu beharreko pausu etikoak berak ziren, hauek aplikatzeko espazioa zen ezberdina zen gauza bakarra.

Izenak, beraz, izanaren inguruan hausnartzera eramanez, burututako online etnografiak, etnografia baten antz handia baitzuen. Aurrez-aurreko elkarrizketak burutu izanak ere zer pentsatua eman zidan, izan ere, online espazioa gaintzen zuten teknikak aplikatu nituen eta, ondorioz, ezin nezakeen esan “online” etnografia zenik presentzialak edota offlinean izandako sakoneko elkarrizketak eginda. Are gehiago, maila teoriko batean kokatuz, ingurune digitalak gizartearen esparru guztiak zipiritintzen dituen elementua izanik, online munduan ematen diren harremanak ulertzeko

beharrezkoak izango dira beti aurrez-aurreko harremanak, erakundeak eta ikuspegi historikoa izatea.

Izena oso argi izan gabe ere, bideari ekitea erabaki nuen: euskal identitatea, gizarte eta herriaren inguruko ikerketetan eztabaida terminologikoetatik ez ateratzeko joera ikusita nuen, eta, eztabaida hauen garrantzia kontuan hartuta ere, gaia lantzen jarraitu nuen modu honetan eztabaida hori argituko nuelakoan. Akats propioetatik ikasiz, eta bizitza offlinea eta onlinea bereizi ezina direla praktikara eramanez, bidean beste pausu bat emanez “etnografia digitalean” murgildu nintzen. Kontzeptu honen bidez, herritarrek eta komunitateek aurrez-aurreko zein online bidezko harremanetan dituzten portaerak ikertzeari egiten zaio erreferentzia. Beste era batera esanda, ingurune digitala nagusi den gaur egungo gizarte ereduaren dauden espazioak eta harremanak barnebiltzen ditu. “Etnografia digitala” kontzeptuak, beraz, abizen beraren bidez, gaur egungo garaira moldatzea du helburu.

Ildo honetatik, lan bikaina egin dute University College Londoneko irakaslea den Daniel Miller eta bere ikerketa-taldeak. 2016. urtean, munduko herri ezberdinetan 15 hilabeteetako etnografiak egin zituzten herritarren harremana online sare sozialekin zer nolakoa zen ikertzeko. Munduan zehar aurkituko zituzten ideia hain ezberdinak kategoriatan komun batzuen arabera antolatu zituzten: herri ezberdinetan familia, eskola edota lantokia aztertuz, online sare sozial eta Interneten inguruko mundu mailako ondorio orokorretara heltzeko aukera izan zuten. Zehazki, “How the world changed social media” (Miller et. al., 2016) liburu sortan, India, Italia edota Txinako gizarteak deskribatzen dituzte etnografia banarekin eta izenburu berbera duen liburuan, herri guztietako etnografiei esker ondorioztatuko ideiak landu ere.

Orri hauetarako, ordea, interesgarriena etnografia bera izendatu eta ulertzeko moduan dago. Izan ere, “etnografia digitala” kontzeptua erabili beharrean, online sare sozialak eta Internet bera aztertu arren, beste abizen barik betiko “etnografia” hitza erabiltzen dute. Arrazoia argia da: ingurune digitala egunerokotasunean edonon dagoen hori baldin bada, etnografia oro izango da etnografia digitala. Edo beste modu batera esanda, etnografia online egokia burutzeko, derrigorrezkoa izango da Internet bidezkoak ez diren harremanak aztertzea. Ideia honetatik jarraituz are gehiago esan daiteke ere: gaur egun gizarte edota gizarte-harremanen inguruko ikerketa egokia burutzeko nahi eta nahiezkoa izango da, modu batean edo bestean, ingurune digitala lantzea; eta, beraz, gaur egun burutzen den etnografia oro etnografia digitala izango da, etnografia digital guztiak etnografiak diren moduan.

Baieztape hauek Euskal Herriko kasura ekarrita, argi ikus daiteke nola, adibidez, euskararen biziberritzearen inguruko ikerketa bat egin nahi baldin bada, derrigorrezkoa izango den Whatsapp bidez ematen diren elkarrizketak aztertzea; hau aztertu ezean, gaur egungo gizarte-harreman nagusiak ikertu gabe egongo lirarteke eta, ondo-

rioz, ikerketak ez luke euskal gizarteak euskaraz hitz egiteko duen modu garrantzitsu bat ikertuko. Ingurune digitala, eta hau da oso kontuan izan beharreko ideia, ez da beste elementu bat edo beste espazio bat: ingurune digitala gure bizitzetako espazio, erakunde eta harreman guztietan dagoen elementua da. Eta, beraz, hau ukatzea gizartea beraren oinarria ukatzea izango litzateke. Hori dela eta, gaur egungo Euskal Herrian gertatzen den edozein dimentsioko (politikoa, ekonomikoa, juridikoa, kulturala) gairen bat (euskal identitatea, generoa, aniztasuna, demografia) aztertu nahi badugu, Interneten sarearen haria aztertu beharra dago.

4. “HARI ETA HERRI”: EUSKAL TERRITORIOA LUZAIDETIK MARRAZTEN

Doktorego-tesian egindako ikerketari esker, euskal komunitateak distantzia geografikoak gaudituz espazio bera partekatzeke aukera duela ondorioztatu nuen. Doktorego-osteko ikerketan, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin eta Daniel Miller antropologoaren zuzendaritzarekin, espazio hori zer nolakoa den aztertu nahi izan dut. Mundu mailako Interneten gaia euskal betaurrekoekin ikusiz, herriek ingurune digitalaren garaian muga geografikoak gauditzen dituzten territorioak marrazten dituztela ondorioztatzeke aukera izan dugu.

Beste modu batera esanda, estatuen muga geografiko eta administratiboen gainetik, herri bateko herritarrek bestelako territorioak, mugak eta mapak sortzen dituzte leku geografikorik trazaraten ez duen Interneten. Doktorego-tesian aztertutako kasuan bezalaxe, Txina, India, Finlandia edota Euskal Herrian kokatuta zeuden gazteek Facebooken komunitate bat sortu eta espazio bera partekatzeke, bizitzeko eta habitatzeko aukera zuten. Honek, ordea, ez du esan nahi Interneten askatasunez aritzeko aukera dagoenik. Izan ere, estatuen muga geografiko eta administratiboen gainetik bestelako territorioak sortzeak ez du inondik inora esan nahi estatuaren figura edo indarra desagertzen denik: Euskal Herrian ondo baino hobeto dakigun moduan, honen eragin argia jarraitzen du, adibidez, Facebooken erregistratzerako orduan euskal herritar gisa egiteko aukerarik ez dagoelako.

Ondorio horretatik abiatuz, 2016. urtean hasitako doktorego-osteko ikerketan, beraz, Euskal Herriaren mapa berri hau marraztea zen erronka; zintzoak izanda, oraindik erabat marrazteko gai ez garenak, oraindik ere, paradigma zaharretatik pentsatzen dugulako. Baina, hala ere, lehen bozeto honekin, behintzat, etorkizuneko pausuen oinarria ezartzeko parada izan dugu. Horretarako, mugak gauditzeaz ari ginela, gure herriak dituen muga administratiboak marraztu genituen lehendik: bi estatuen baitan dagoen herria izanik, oso interesgarri ikusi genuen mugaldeko herri batean etnografia burutzea. Digitaletik gutxi zeukan lehen pausu honek, baina etnografia digital oro

etnografia dela (eta alderantziz ere izan behar duela) jakinda, beldur barik ekin genion bideari momenturen batean, bilatu gabe ere, ingurune digitalaren elementuak aurkituko genituelakoan.

Hendaian hasi genuen bidea herri horren inguruan aurretiaz egin diren etnografia interesgarriengatik (Bray, 2011). Bertako lagunek asko lagundu arren, gure helburuetarako eta nire etnografo gaitasunetarako herri handiegia zela ohartu ginen: gizarte-harremanetan murgiltzeko eta sakontzeko aukera gutxi genituen eta, gainera, oso zaila egiten zitzaidan hain handia den herri batean sakoneko harremanak garatzea. Nolanahi ere, bertan bizi eta emandako hiru hilabeteetan ikastolaren eta bertako gurasoen batzarren behaketa parte hartzaileari esker, mugaldeko herri batean euskarak, gaztelania eta frantsesarekin daukan gatazka eta online sare sozialen erabileraren inguruko oinarri batzuk ezarri ahal izan nituen. Era berean, anekdota ederra bizitu ahal izan nuen Irun eta Hendaia batzen dituen Santiago zubi erdian larritasun gabeko kotxe istripu bat ikusi nuenean: mugan bertan, mugaren gainean, hegoaldeko eta iparraldeko kotxe banak talka egin zuten, Ertzaintzak eta Gendarmeak, bakoitza bere aldean, istripua argitzen egon zirelarik. Estatu bat ez izatearen ondorioa, bi estatutan banatuta dagoen herri bat izatearen ondorioa, irudi batean ikusteko aukera izan nuen.

Hendaiatik beste herri batera mugitzeko hautua eginda izan arren, etnografia egiteko lekua zehaztu beharra nuen. Lankide bati ikerketaren berri eman ostean, Luzaide eta Arnegiko herrien artean eskola bakarra sortu behar zutela ezagutu genuen. Alegia, frantziar eta espainiar estatuen administrazioen gainetik, mugaz gaindiko eskola bat sortu behar zutela Orreaga eta Donibane Garazitik hurbil dauden bi herri haue-tan. Aukera ezin hobea ikusita, bertara bizitzera joan nintzen etnografia bat egiteko asmoz; kurtsoa hastear zelarik, bizitza aldaketa arin eta ia presaka egin behar izan nuen erabaki egokia ote zenaren beldurra nuelarik. Orain, etnografia bukatuta, ikerketaren zuzendariaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz gain, luzaidetarren beraien laguntzaz eta maitasunarekin batera emaitza bikainak eman zituen lana eta bizitza izan zela esan dezaket.

Luzaiden, etnografia klasikoetako hainbat elementu jarraituz, hauek ingurune digitalarekin duten lotura aztertu genituen: auzolana, IKT-ekin duen lotura; ostatuek, maila ekonomikoan Internetez nola baliatzen diren; herritarrek, online sare sozialak nola erabiltzen dituzten edota eskolan eta elizan elementu digitalek duten presentzia landu genituen. Batetik, ingurune digitala zerbait berezi moduan ulertzeari uko egin genion: herritarrek Internetera nola konektatzen eta deskonektatzen diren edota offline eta online harremanak bezalako ideiak atzean utzi eta, pausu bat gehiago emanez, konektatuta bizitzeko moduak aztertu genituen herriko esparru ezberdinak ingurune digitalaren garaira nola egokitu diren ikertuz.

Bestetik, Hendaiako etnografiarekin alderatuta, kontrako bidea hartu genuen modu intuitibo batean: kasu honetan, muga gainditzeari arreta gutxiago jarri genion, izan ere, berez, harreman guzti horiek era normalizatu eta barneratu batean aurkituko genituelakoan geunden. Hau da, herritarrek haien egunerokotasuneko bizitzan mugak gainditzen zituztela begi bistakoa zenez, hain nabariak ez ziren ingurune digitalarekin lotutako harreman sozialei erreparatu genien. Zentzua galtzen zuen kanpotarraren begiradatik bertakoentzat ohikoa dena azpimarratzea eta, horregatik, bertakoen bizimodutik arituz, kanpotarraren begirada bertakotuz, bertakoentzat ohikoa izateagatik ikusteko gai ez ziren praktiketan zentratzean etnografia egokiagoa egingo genuela erabaki genuen. Azken finean, horixe bera baita etnografia: kanpotarraren begirada bertakoen bizitzetara moldatzea, posizio batetik zein bestetik ohikoak diren jarrerak kolokan jartzea eta deserosoak diren ohituretan, praktiketan eta gorputzetan bizitzea.

Etnografia begirada lantzea eta enpatia ariketa egitea da, baina zintzoak izanda, erredikulua eta norberaz barre egitea ere bai. Zenbait liburutan irakurrita neukan (Barley, 1996) eta Daniel Miller berak behin eta berriz esanda zidan etnografia egokia, kanpotarra izateagatik zein ezer ez ulertzeagatik, gaizki hitz egin edo desegoki aritzean bertakoek zutaz barre egitean hasten zela. Harremantzeko erak arrotzak direnez, hitz egiteko moduak eta tonuak ezberdinak direnez eta janzteko era ere zeharo ezberdina denez, ikasketa prozesu bat beharrezkoa da; etnografoak hau bukatu arte ibili beharreko bidean, hainbat akats eta hanka-sartze egiten dituelarik egoera erredikuluetan geratuz. Horrek, inguruak eta norberak barre egiteak, batetik, kanpotarraren eta akademikoaren ikuspegiak gainditu eta, bestetik, komunitateak berak bere kide izateko barrera bat jaitsi zuela esan nahi baitzuen. Berez bide mingarria izan daitekeena interesgarri bilakatzeko, prozesu hau, gizarte harremanen beharrezko parte gisa onartzea da gakoa: pertsonok-taldeok-komunitatetok ezberdina eta berria izateagatik gai ulertzeko ez garena, horretaz barre egin eta etiketa errazak jartzeko ohitura pertsonal-sozial-intelektual eroso gisa onartzea.

Iragate erritu moduan uler daiteke etnografoak heldu berri den herrian egiten duen erridikulua eta eragiten duen barrea, nire kasuan, aste luze batzuk iraun zuena. Etnografia tabernan hasi zen. Bertan egin nituen lehen harremanak, bertan lortu nuen luzaidetarren konfiantza apur bat eskuratzea eta nire inguruko hainbat etiketa eta hitz faltsu gaineratik kentzea. Polizia, apaiz gazte berria edo ogasuneko nintzela esaten zen herrian: hainbat gauza esan dira niri buruz barre egitea besterik ezin dudala; eta neure burua hitzez defendatzea okerragoa izanik, egunerokotasuneko praktika eta harremanekin egoera argitzea zen egokiena. Modu honetan, ikerketaren berri eman ostean eta behin eta berriz etnografia bat zer den eta soziologia zertarako eta zergatik existitzen den galderei erantzunik ez dudala esatean, egoera baretu zen. Asteak pasa ahala herrian integratzen joan nintzen mezara joanez, tabernan egonez eta herriko gimnasioan kirola eginez. Luzaidetarren eskuzabaltasunak gainerako guztia egin zuen. Ehiza egitera gonbidatu ninduten, Gabonetan familia baten gonbita jaso nuen haiekin bazkaltzeko, Errege Mago

gisa mozorrotzeko gonbita egitera ausartu ez zirela onartu zidaten, lhauteriak bertan bizi nituen, udaletzeko ateak ireki zizkidaten, Korrika herritik pasa zenean mugarik ez zegoela sentitu nuen eta Guardia Zibil eta Gendarmeen kontrolek bi muga daudela gogorarazi ere, ate guztiak ireki zizkidaten ... bat izan ezik: Bolanta egunean dantza egiteko aukera ukatu zidaten (egia esanda, nire trakeastasuna dela medio, bihotzez eskertzen diedana).

Deskribapen honekin ikusi daitekeen moduan, beraz, etnografia klasiko bat egin nuen. Herria eta herritarren harremanak aztertu nituen bertan biziz, ingurune digitalak, muga gainditzea bezala, hain ohikoa izanik garrantzi berezirik izan ez zuelarik. Luzaiden bizitzen eta bertakoen bizimodua jarraituz, hau da, eskolan, elizan, kalean eta egun berezietan egonez, eta beraz eginez, Luzaideko herria zein Internet eta online sare sozialak nola bizi dituzten ezagutu nuen. Modu honetan, mugaldeko herri batean etnografia eginez eta luzaidetarrei esker, ingurune digitalaren garaian herriek habitatzten duten territorioan gehiago sakontzeko aukera izan nuen.

Horrela beraz, aipatu akats metodologikoetatik ikasiz eta hauek praktikara eramanda, “etnografia online”-etik “etnografia”-ra igaro nintzen, “etnografia digitala” gainetik zeharkatuz bertan denbora larregi geratu gabe. Eta garrantzitsuena dena, Luzaiden egingako etnografiarekin, koloniak menperatzeko tresna-metodologiko bat herri kolonizatu batek bere burua mapan jartzeko erabili dugu: etnografiari esker, ingurune digitalaren garaian Euskal Herriak habitatzten duen territoria identifikatzeko gai izan gara. Eta, era berean, Internet bezalako mundu mailako gai bati gure herritik ekarpen teorikoa egin ahal izan diogu: orain arte ezagutzen genituen mapa geografikoak beste koordenada batzuetan ulertu, ikusi eta marraztu behar ditugula azalduz.

Orri hauek, tamalez, ez dira aski ideia guzti hauek azaltzeko eta, horregatik, aukera sortzen bada, aipatutako proposamenak “Hari eta Herri” liburuan garatu eta argitaratuko ditut laster. Izan ere, hori da altxatu beharreko harria: ingurune digitalaren sarean Euskal Herriak habitatzten duen territoria marraztea. *Harri eta Herri* (Aresti, 2010) bat garela ahaztu eta ukatu gabe, are gehiago, oinarri horretatik abiatuz, gaur egungo mundu globalizatu eta digitalean euskal herria-gizartea-komunitatea-identitatearen papera indartzeko aukera urratzea.

5. ONDORIOAK

Doktorego-tesian eta doktorego-osteko ikerketan ikusitakoaren arabera, ondorio nagusi gisa, ingurune digitalaren garaian herri baten mugak marraztu ahal izateko, hiru elementu ditugula esan daiteke: batetik, mapa geografikoaren lekua; bestetik, sarearen atmosferaren espazioa (hodeia baino gehiago dena, goian dagoen objektua baino guz-

tia zipriztintzen duen hori dena) eta, azkenik, bien uztardurak sortzen duen ingurune digitalaren territoria.

Lehenik eta behin, Euskal Herriko mapa dugu: mapa geografikoak (zazpi lurraldeena) eta mapa politikoak (bi estatu eta hiru administrazioena) ezartzen duten erreallitate. Era berean, zazpi lurraldeei Diasporak osatzen duen zortzigarrena gehitu behar diogu, eta, are gehiago, doktorego-tesian ikertutako kasua jarraituz, epe motz baterako atzerrian dauden gazteek sortzen dituzten atzerriko komunitateak. Globalizazioaren garaian kokatuta, sistema kapitalista ekonomiko eta kulturalaren behin-behinekotasuna agerian geratzen da hemen: aurreko garaietan ez bezala, ikasketa edo lan arazoak medio, epe motz baterako aberrik atzerri mugitzen diren euskal herritarrak daude; Diasporak eskatzen duen egoera (behin betikotasun) eta motibazioetatik (adibidez, gerra batek ihes egitearena) urrun. Izan ere, globalizazio garaiak ezarritako logika neoliberalen bizi garen honetan, distantzia geografikoetan “urrun” eta “hurbil” dagoena birpentsatu beharra dago: Londres hurbil dago, baina Luzaide lekutan -mapan kokatzeko gaitasuna izatekotan- eta Baiona mugaren beste aldean edo, zenbaitentzat, zuzenean Frantzia. Beste era batera esanda, muga administratiboak hainbeste barneratu ditugu ezen herri beraren baitan mugak ikusteko gai garen eta herritik kanpo dauden hirietan etxean sentitzen garen.

Hau da, beraz, esku artean dugun mapa, geografikoa izateaz gain, politikoa, kulturala eta ekonomikoa ere badena; atzerriko bi estatuen eragin politikoak medio, aberriko harreman politiko, kultural eta sozialen bidez erreproduzitzen duguna. Kanpotik ezarritako muga administratiboak geure egunerokotasunean trazatzen ditugu, geure baitan ondo ezarrita ditugulako eta mundu-ikuskerak horretatik hitz egiten, egiten eta sortzen dugulako. Espainiar eta frantziar estatuak jarritako mugak bizi ditugu, mugatuta gaudelako. Izan ere, gaur egun, muga geografikoak gaintitzen dituen tresna eta espazio bat daukagun arren, hau existituko ez balitz bezala jokatzeko jarraitzen dugu: geure begien aurrean mapa berriak agertzen zaizkigun bitartean, muga zahar eta atzerrikoen arabera ari gara. Muga geografikorik ez duen Interneti, “zortzigarren lurraldea” deitu izan zaio, kontzeptu zaharrekin erreallitate berriak deskribatu nahian, atzerriko erreallitateak indartu eta erreallitate propioak ukatu direlarik.

Izan ere, bigarrenik, espazio berri bat dugu: Internet. Lurralde bat ez dena, gizarte-harremanak, politika, ekonomia eta, ikerketa-kasu honetan, geografia bera ere errotik aldatu dituen. Testuan zehar ikusi bezala, estatuak eta, batez ere, merkatuek arautzen duten espazioa; askea ez dena; soilik sinbolikoa ez dena eta zeharo materiala eta erreala dena. Baina baita, distantzia geografikoak ezabatzen dituen espazioa eta, beraz, maila batean, muga geografikoak eta administratiboak gaintitzeko aukera ematen duena ere.

Argi esanda, hau da doktorego-tesi eta doktorego-osteko ikerketen bidez ondoriozta daitekeen ideia nagusienetariko bat: lehen aldiz gure historian zehar, espai-

niar eta frantziar estatuen mugen gainetik euskal herritarrok espazio berean bizitzeko aukera dugula. Izan ere, Interneten, Donibane Garazi eta Bilboren arteko distantzia, Hendaia eta Irunen arteko distantzia bera da, edota Iruñeko Txantrea eta Arrotxapea auzoen artekoa: zero kilometrotara daude guztiak. Beste era batera esanda, leku horietako herritarrek, geografikoki urrun badaude ere, espazio berean aurkitzen dira Interneten. Arrazoiketarekin jarraituz, beraz, Diasporaren zortzigarren lurraldean pentsatuta, aurrez aurre ez bada ere herritar horiek espazio berean daudela esan daiteke. Eta, beraz, herri barnean zein kanpoan dauden herritarren arteko distantzia bera dela, espazio bera partekatu eta espazio berean bizi direlako.

Baina, jakina, ez da gauza bera espazio horretara, adibidez, euskara ofiziala ez den edota euskaraz bizi den leku batetatik heltzea: Interneten erabilera herri ezberdinen arabera ezberdina dela jakinda, gure kasu zehatzean, Lapurdi edo Gipuzkoako herritar baten Interneteko euskararen erabilera ezberdina izango dela esan dezakegu, bateko zein besteko administrazio publikoek onartzen dituzten eskubideak ezberdinak direlako. Berriro ere, Internet ez da isolatua dagoen espazioa, lekuari erabat lotuta dago. Horregatik, bi dimentsioak izan behar ditugu kontuan: lurraldetasuna ezin da ulertu Interneteko espazioa gabe eta Internet ezin da ulertu lurralde jakin batean ematen diren aukera, baldintza eta ukapenak kontuan hartu gabe.

Horretara dator, beraz, hirugarrenik eta azkenik, territorio kontzeptua: herritar talde batek bizi duen leku geografikoa eta espazio sinbolikoaren mapa marrazteko. Horretara dator, beraz, ingurune digitala kontzeptua: Interneten alde fisikoa eta sinbolikoa ulertzeko eta gizarte-harremanak, herrien mugak, harreman ekonomikoak, legedia, burujabetza, demokrazia, independentzia... oro har, mundua, beste kosmopolisio baten arabera ulertzeko.

Ikuspegi honetatik, distantzia geografikoak ezabatuz eta muga administratiboak gaindituz, beraz, euskal herritarrok territorio bera bizitzeko eta eraikitzeo aukera dugula ikus daiteke. Gure hizkuntza hitz egin eta idazteko; gure sinboloak partekatu, eraiki eta, beharrezkoa bada, berriak sortzeko; baina, batez ere, politika berriak garatzeko. Estatu propio bat ez izateak eta bi estaturen baitan egoteak hainbat muga ezarri dizkigu, eta oraindik ere ezartzen dizkigu, politika publikoak garatu eta lurraldetasuna egituratzerako orduan. Ingurune digitalaren garaian muga hauek ez dira desagertzen, baina joko-zelai berri bat planteatzen zaigu. Internet bezalako joko-zelai bat zeinetan hiru euskal administrazioen arteko harreman politiko-ekonomiko-kulturalak “klik” bateko distantziara dauden; Internet bezalako joko-zelai bat zeinetan oraindik ere, eta agian ez oso denbora luzez, gure posizioa ezartzeko aukera dugun. Nola? Ba beste herri batzuetan egin duten bezala, maila politiko-ekonomiko-kulturalen ingurune digitalen gaiak landuko dituen Sailburutza bat sortzen edota maila akademikoan gai hauek ikertuko dituen Euskal Herri mailako institutu bat sortzen. Eta, ahal bada, maila

akademiko eta politikoaren artean zubiak ezartzen (baita ere beste herri batzuetan egin dutena), akademiak euskal gizartearen eta herriaren arazoak eta erronkak identifikatuz zein aztertuz eta dimentsio politikotik hauei erantzun emanaz.

Modu batera edo bestera, argi dagoena da gizartea aldatu dela eta hau ulertzeko kontzeptu eta ikuspegi berriak behar ditugula. Munduan zehar denok ikusten ari diren hori gure herritik ikusi beharra dugu, eta gure hitzekin azaldu. Hasiera batean horixe zientzia zela esaten nuen eta horrela bukatu nahiko nuke: euskal identitateak-hizkuntzak-komunitateak-herriak eman didan ikuspegiari esker hipotesi bat mahai gaineratuz: Benedict Andersonek naziorik txikienetako herritarrek aurrez aurre ezagutzeko aukera izango ez zutela azaltzen zuen egunkariaren garaian; ingurune digitalaren garaian, ordea, Euskal Herritik, nazio handienetariko herritarrek ere aurrez aurre ezagutzeko aukera dutela esan dezakegu.

Eta honek, artikulu baten orri kopurua dela eta, Hari eta Herri liburuan landu beharko dudan proposamen honek, mundua ulertzeko modua aldatzea eskatzen digu. Eta horixe, Euskal Herritik egin dezakegu, estatu propiorik gabe bi estaturen baitan bizi garelako, urteetan zehar hitz eginez moldatu dugun hizkuntza dugulako, idazteko daukagun historia bat dugulako eta, batez ere, herri gisa etorkizun bat nostalgiaz bizi nahi dugulako. Eta, horretarako, behar beharrezkoa dugulako gure herria estatu gisa mapan jartzea, paradoxikoa bada ere, geografia gainditzen duen Internetera joz. Eta, horrela, euskal identitateaz hitz egitea bezala, gure herrian etnografia (entzutea, ezberdinak direnekin esertzea, ikastea eta desikastea, beste betaurrekoekin mundua ikustea) baliatuz ingurune digitalaz eta honen bidez lurraldetasunari, identitateari eta herriari begira sor ditzakegun etorkizunez hitz egitea, demokraziaz, justiziaz edota burujabetzaz hitz egitea bilakatzen dugu. Eta, horregatik, gai hauek gehiago, sakonago eta serioago landu beharko genituzke: erantzukizun handia baitugu orain eta hemen izan nahi dugun oro izendatzen.

BIBLIOGRAFIA

- Anderson, Benedict (1993): *Comunidades imaginadas: reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Fondo de cultura económica, Mexiko.
- Aresti Segurola, Gabriel (2010): *Harri eta Herri*, Susa, Zarautz.
- Beck, Ulrich (2006): *La sociedad del riesgo: hacia una nueva modernidad*, Paidós, Bartzelona.
- Beck, Ulrich eta Beck-Gernsheim, Elisabeth (2003): *La individualización*, Paidós, Bartzelona.
- Barley, Nigel (1996): *El antropólogo inocente: notas desde una choza de barro*, Anagrama, Bartzelona.

- boyd, Danah (2002): *Faceted Id/entity: Managing Representation in a Digital World*, MIT Master's Thesis, Cambridge. <http://www.danah.org/papers/Thesis.FacetedIdentity.pdf>
- Bray, Zoe (2011): *Living boundaries: frontiers and identity in the Basque Country*, Center for Basque studies, Reno.
- Castells, Manuel (2012): *Networks of Outrage and Hope: Social Movements in the Internet Age*, Alianza, Madril.
- Díaz Bizkarguenaga, Koldo (2017b): "Ingurune digitala. Internet institutuak, atzeritik ikasten", *Jakin*, 219, 121-126. <https://www.jakin.eus/blog/ingurune-digitala/koldo-diaz-bizkarguenaga/internet-institutuak-atzeritik-ikasten/218>
- Díaz Bizkarguenaga, Koldo (2016a): *Faceguk: euskal identitatea eta komunitatearen eraikuntza Internet garaian*, Deustuko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua, Bilbo.
- Díaz Bizkarguenaga, Koldo (2015b): "FaceGUK: la construcción social de la identidad vasca analizada desde la etnografía digital", *Athenea digital* 15 (2): 275-288. <http://dx.doi.org/10.5565/rev/athenea.1623>
- Dutton, William (2009): "The fifth Estate emerging through the network of networks", *Prometheus*, 27 (1), 1-15. [Doi:10.1080/08109020802657453](https://doi.org/10.1080/08109020802657453).
- García Canclini, Nestor (1999): *La globalización imaginada*, Paidós, Buenos Aires.
- Goffman, Erving (1993): *La presentación de la persona en su vida cotidiana*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Goffman, Erving (2006): *Frame analysis. Los marcos de la experiencia*. CIS, Madril.
- Gómez Cruz, Edgar (2002): "Espacio, Ciberespacio e Hiperespacio: Nuevas configuraciones para leer la Comunicación Mediada por Computadora", *Observatorio para la CiberSociedad*, online bertsioa <http://www.cibersociedad.net/archivo/articulo.php?art=19>
- Hine, Christine (2004): *Etnografía Virtual*, UOC argitalpen zerbitzua, Bartzelona.
- Iztueta Azurmendi, Ibai (2015): *Cultura vasca vs. euskal kultura*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Kozinets, Robert (2010): *Netnography*, SAGE, Londres.
- Miller, Daniel (2011): *Tales from Facebook*, Polity Press, Erresuma Batua.
- Miller, Daniel et. al. (2016): *How the world changed social media*, UCL Press, Londres. <http://www.ucl.ac.uk/ucl-press/browse-books/how-world-changed-social-media>
- Miller, Daniel eta Slater, Don (2000): *Internet. An ethnographic approach*, Berg, Oxford.
- Sennet, Richard (2006): *La corrosión del carácter*, Anagrama, Bartzelona.
- Sennet, Richard (2007): *La cultura del nuevo capitalismo*, Anagrama, Bartzelona.